

Ordizian, 2010ko urriaren 18an, udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **UDALEKO OSOKO BILKURA, EZOHIKO ETA PRESAZKO DEIALDIAN**, honakoak bertaratu zirelarik

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA:

Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Alejandra Iturriotz Unzueta andrea	PNV taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Miren Auzmendi Urkiola	PNV taldea
Iban Asenjo Garde	EA taldea
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)
Jose J. Lopez Fernandez jauna	PSE-EE (PSOE) taldea
Carlos Gonzalez Astiz jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Iñigo Manrique Cía jauna	PP taldea

BERTARATU EZ DIRENAK:

Belen Maiza Urrestarazu Andrea	EA taldea
Monica Marañon Basarte	PSE-EE(PSOE)
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:


Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jauna

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea



BERTARATUKOAK ETA EZIN ETORRIAK

AZTERTUTAKO GAIK

EGUNEKO GAI ZERRENDA:

- 1.- 2011ko ekitaldirako Ordenantza fiskalen aldaketen hasierako onespena.
.....4.orr.
- 2.-Telefonia mugikorrekoez bide publikoaren aprobetxamendu bereziagatik ordainduko duten
Tasa arautzen duen Ordenantzaren hasierako onespena eta 2011rako tarifa onartzea
.....4.orr.

GORABEHERAK


Asenjo jauna bozketako garaian kanpora joan da.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 8,05 h

BUKAERA ORDUA: 09,15 h.





Alkate jaunak

Alkate jaunak gaurko bilkura ez ohikoa eta presazkoa zergatik den azaldu du.

Tasak onartzeko prozedurarako epe mugatua dagoela azaldu du eta horregatik izan dela presazkoa, hasierako onespentetik 30 eguneko epean erakusketa publikoan egon behar dute eta erreklamazioak sorteen badira, abenduko ohiko bilkurarako konpondu behar dira eta GAO-n argitaratu behar dira, 2011ko urtarrilaren 1a baino lehenago, egun horretatik aurrera indarrean jarri daitezten.

Asenjo jaunak

Idazkariari deialdia legezkoa den jakiteko informazioa eskatu dio, hurrengo bi arrazoiengatik:

- 1.- Gai zerrendaren lehen puntuan ez da "presazko izaeraren" bozketa sartu.
- 2.- Kasu honetan ez du uste "presazko izaera" duenik. Jurisprudentziari egin dio aipamena.

Adierazi du presazko izaera ez dela erabiltzen kasu hauetarako, urteroko gaia dela eta data horretako kontua, eta beraz, izaera hori duen deialdia ez dela legezkoa

Idazkari andrea

Idazkari andreak erantzun dio esanez formari dagokienez berak legea bete duela.

Bilkurari "ez ohiko eta presazko" izaera emanda, ez dago zertan deialdia bi egun lehenago egin beharrik.

Gainera, puntua aktan sartu behar den ala ez, ohiko bilkura presazkoa izatean Batzordeko lehendakariak arrazoitu beharrekoa dela adierazi du, eta azalpen hori bozkatu egiten dela jakinarazi du, ohiko bilkura presazko izaera erabakitzeko legezko organu subirano bakarra da osoko bilkura eta bertan erabaki behar da bilkura egiten den ala ez.

Hala ere, forma aldetik okerrik egin bada bilkurak bozkatzen duen unean bertan zuzentzen den akatsa dela azaldu du, eta bozketa beti egiten dela Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordean aztertzen ez den "presazko puntuekin", eta bozketa bidez sartzeko da eguneko gai-ordenean.


Presazko izaera baloratu gabe dagoela azaldu du Idazkariak eta kasu bakoitzean erabaki beharreko "legezko kontzeptu zehazgabea" dela, eta batzuek presazko izaera arrazoitu dezakete eta beste batzuek ez. Bera ez da eztabaida horretan sartuko.

Gonzalez jauna

Asenjo jaunarekin ados dagoela dio, presazko izaerarik ez duela iruditzen zaio.

Alkate jaunak

Aurreko astean izandako Gai Arruntan Batzordean batzordekideei honi buruz hitz egin ziela adierazi du eta 2011rako prezioen eta tasen bi proposamen aurkeztu zituela.



1.- Izoztea, zaborraren tasa izan ezik

2.-KPI-ren igoera

Asenjo jaunak

Goizez izatean, ordutegiarekin arazoak izango zituela jakinarazi zuela esan du.

Txurruka jaunak

Azkeneko Gobernu Batzordean (irailaren 30ean, adierazten du idazkariak), berak proposamena aurkeztu zuela esan du eta EA eta PSOEn proposamenak jasotzekotan geratu zela, eta azkenekoak hurrengo astearte edo asteazkenerako aurkezteko konpromisoa hartu zuela, hau da, urriaren 6an aurkeztekotan geratu ziren. Epe horretan proposamenik ez duela jaso esan du.

Dubreuil jaunak

Hori ez dela horrela, eta bere taldeko proposamena berak Alkateari eman ziola jakinarazi du.

Kontuhartzaile jaunak

Bere ustez presazko izaera arrazoitua dago, prozedura betetzeko denbora gutxi dagoelako.

Bilkuraren presazko izaera bozkatu da.

Asenjo jauna

Argitu du bere taldea, EAK, aurkeztu ziola Alkate jaunari bere proposamena.

Proposamena onartzeko gehiengoa: osoa

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (EAJ/PNV 4, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1)


Kontrako botoak: 1 (IU/EB-ARALAR)

Abstentzioa:

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamenaren presazko izaera onartutzat eman du.

Asenjo jauna bozketako garaian kanpora joan da.





Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren lehen puntuaren berri eman du:

1.-2011ko ekitaldirako Ordenantza fiskalen aldaketen hasierako onarpena

Proposamena

Alkate jaunak 2011eko udal tasa eta zergen inguruan aurkeztutako proposamena ikusita, gaiaz eztabaidatu ondoren eta uztailaren 5eko Gipuzkoako Herri Ogasunak arautzen dituen 11/1989 Foru Arauan jarritakoa betez, honakoa proposatu du:

AKORDIO PROIEKTUA


1.- 2011 urteko ekitaldian aplikatzeko, behin-behinean onartzea.

B) 6. ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINAREN ALDAKETA, ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO EKINTZAK BURUTZEAGATIK TASAK ARAUTZEN DITUENA

ZABORRAK BILDU ETA EZABATZEA

	Euro/urteko
Etxebizitza pribatu hutsa	60,37
Etxebizitza pribatu okupatua	80,50
4 langile baino gutxiago dituzten denda edo establezimenduak, baita industria txikia ere.	177,88
4 langile edo gehiago dituzten denda eta establezimenduak orokorrean	292,19
Janari dendak eta jakirik gabeko tabernak	251,65
Jakiak dituzten tabernak (ogitartekoak, plater konbinatuak, pintxoak etab.) eta 5 langile baino gutxiago dituzten jatetxeak	396,95
5 langile baino gehiago dituzten jatetxeak eta 3 langile baino gehiago dituzten janari dendak	1.102,57
10 langile baino gehiago dituzten industriak Udal Administrazioarekin hitzartu.	
Udalari eskatutako zerbitzu bereziak Udal Administrazioarekin hitzartu.	
Kultur eta kirol elkarteak (gastronomikoak)	396,95
Pubak	396,95
Pagosa	2.918,34
Eroski	9.255,26
Bulego profesionalak edo antzekoak	120,79

2.- Ordenantza Fiskalen aldaketa jendaurrera zabaltzea Iragarki taulan edo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko epean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, Udalak ebatziko dituenak. Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartuko dira.



Proposamena onartzeko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Datorren urteko tasak eta prezio publikoak izozteko proposamenarekin datozela adierazi du, zaborrena izan ezik, %8ko igoera izango du eta Sasietak zehaztutakoa da.

Horrekin batera, jakinarazi du 2009an IBien igoera nahiko handia izan zela, beharbada gehiegizkoa, eta herritarren kexa dezente jaso dituztela horregatik, eta 2010ean %100eko hobaria ematea erabaki zela, hau da, ez kobratzea eta 2011tik aurrera ibientzako "guneen" sistemara itzultzea eta prezio orekatuagoak izatea.

Ibilgailuen sarrerei dagokienean, 20 €-lineal proposatzen da (metro lineala). Honek bizitza bateko etxeetan adibidez, prezioak hain altua ez izatea esan nahi du baina, garaje kolektiboetan, metro gehiago dituztenean, prezioa gehiago igoko da, jende gehiagoren artean ordaintzen den arren.

Ibia berriz denentzako berdina da.

Kontuhartzaile jauna

Zinegotzei koadro-informatzaile bat banatu die pausoka ikusi dezaten zer suposatuko zuen aldaketa hau 2013 urte arte.

Jarrain jasota geratzen da.

IBI IRAUNKORRAREN TARIFA PROPOSAMENA


ZONALDEA	2010	2011	hobari %	2012	hobari %	2013	hobari %
1	45,00	20,50	0,00%	20,50	0,00%	20,50	0,00%
2	45,00	15,38	25,00%	20,50	0,00%	20,50	0,00%
3	45,00	8,20	60,00%	12,30	40,00%	14,35	30,00%
4	45,00	5,13	75,00%	8,20	60,00%	10,25	50,00%

Dubreuil jauna.

Proposamenaren alde bozkatuko duela dio, gaur egungo krisi egoera kontuan hartuta koherentea delako eta era berean familien ekonomia arinduko du neurri batean.

Astiz jaunak

Ez du gaiaren inguruko inongo iritzirik, ez baitu bere taldekide den Leunda jaunarekin elkartzeko aukerarik izan. Horregatik bozkatu du bilkuraren presazko izaeraren aurka.



Bi edo hiru egun atzeratu zitekeela uste du.

Lana dela eta, jendeak ezin izan du azaldu.

Txurruka jaunak

Bera garaiz iristen saiatzen dela azpimarratu du. Berak bete beharrekoa bete du baina ez daki zergatik gaia beti atzeratzen den eta beti presaka onartu behar dela dio.

Manrique jaunak

Proposamenaren alde bozkatuko duela dio.

Gonzalez jaunak

“Auto-lbiengatik” galdetu du. Hau da, beti aparkatuta dauden kotxeez galdetu du, eta ez dituzte mugitzen.

Idazkari andrea

Herrian zehar geldirik dauden autoen ikuskaritza bat egiten dela erantzun dio, eta denboraldi bat pasa ondoren, autoa kentzeko prozedura hasten dela jakinarazi dio, autoa mugitu edo baztertzeko.

Proposamena

Alkate jaunak 2011eko udal tasa eta zergen inguruan aurkeztutako proposamena ikusita, gaiaz eztabaidatu ondoren eta uztailaren 5eko Gipuzkoako Herri Ogasunak arautzen dituen 11/1989 Foru Arauan jarritakoa betez, honakoa proposatu du:


AKORDIO PROIEKTUA

1.- 2011 urteko ekitaldian aplikatzeko, behin-behinean onartzea.

A) 6. ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINAREN ALDAKETA, ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO EKINTZAK BURUTZEAGATIK TASAK ARAUTZEN DITUENA

ZABORRAK BILDU ETA EZABATZEA

	Euro/urteko
Etxebizitza pribatu hutsa	60,37
Etxebizitza pribatu okupatua	80,50
4 langile baino gutxiago dituzten denda edo establezimenduak, baita industria txikia ere.	177,88
4 langile edo gehiago dituzten denda eta establezimenduak orokorrean	292,19
Janari dendak eta jakirik gabeko tabernak	251,65



Jakiak dituzten tabernak (ogitartekoak, plater konbinatuak, pintxoak etab.) eta 5 langile baino gutxiago dituzten jatetxeak	396,95
5 langile baino gehiago dituzten jatetxeak eta 3 langile baino gehiago dituzten janari dendak	1.102,57
10 langile baino gehiago dituzten industriak Udal Administrazioarekin hitzartu.	
Udalari eskatutako zerbitzu bereziak Udal Administrazioarekin hitzartu.	
Kultur eta kirol elkarteak (gastronomikoak)	396,95
Pubak	396,95
Pagosa	2.918,34
Eroski	9.255,26
Bulego profesionalak edo antzekoak	120,79

B) 7. ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALAREN IBI IRAUNKORRAREN TARIFA ALDATZEA.

ZONALDEA	2011	hobari %
1	20,50	0,00%
2	15,38	25,00%
3	8,20	60,00%
4	5,13	75,00%

2.- Ordenantza Fiskalen aldaketa jendaurrera zabaltzea iragarki taulan edo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko epean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, Udalak ebatziko dituenak. Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartuko dira.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (EAJ/PNV 4, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1)

Kontrako botoak: 0


Abstentzioa: 0

IU/EB-ARALAR-eko Gonzalez jaunak ez du bozkatu.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren bigarren puntuaren berri eman du:



2.-Telefonia mugikorrekoek bide publikoaren aprobetxamendu bereziagatik ordainduko duten Tasa arautzen duen Ordenantzaren hasierako onespina eta 2011rako tarifa onartzea

Proposamena

Telefonia mugikorreko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek udal domeinu publikoari erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia emateagatik ordaindu behar dituzten Tasak Arautzeko Ordenantza Fiskala .

Gipuzkoako Tokiko Ogasunaren uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren arabera, telefonia mugikorreko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek udal domeinu publikoko lurzoru, lurgain eta zorupeei erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia emateagatik tasak arautu eta exijitzen dira

Horretarako dagokion ordenantza arautzailea onartu behar da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 49.artikuluren arabera, Tokiko Ordenantzek ondorengo prozedura jarraitu beharko dute:

- 1.- Osoko Bilkuraren hasierako onarpena.
- 2.- GAO on argitaratzea, eta 30 eguneko epean erakustea.
- 3.- Osoko bilkurak aurkeztutako erreklamazio eta alegazioen ebazpena ondoren behin betiko onartzeko Erreklamaziorik, alegaziorik eta iradokizunik egongo ez balitz, hasierako onarpena jaso duen erabakiak behin betiko izaera izango du, osoko bilkuran onartu beharrik gabe.

2010eko urriaren 20ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeko aldeko irizpenarekin hurrengo erabakia proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA:

1.- Telefonia mugikorreko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek udal domeinu publikoari erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia emateagatik ordaindu behar dituzten Tasak Arautzeko Ordenantza Fiskala onartzea


2.- GAO on argitaratzea 30 eguneko epean dagozkion erreklamazio eta alegazioak aurkezteko aukera emateko, eta alegaziorik aurkezten ez badute hasierako onarpena jaso duen erabakiak behin betiko izaera izango du .

Proposamena onartzeko gehiengoa: soila

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak



Tasa kobratzen hasi zen aurreneko Udala Badalonakoa izan zela jakinarazi du eta irabazi egin dituela bere aurka jarritako auziak, eta gainerako Udalek bide hori hartu dutela. Badalonako Ordenantza eredu bat da, beharbada seguruen hori da, eta tasa kobratzeko aukera badagoela argi dago.

Kontuhartzaile jaunak

Azladu egin du.

Dubreuil jaunak

Tasa kobratzearen alde dagoela esan du, baina Ordenantza beranduago onartu beharko litzatekeela adierazi du.

Ez dago Ordenantza onartzearen alde, telefoniarako tokiak mapa batean aztertu beharko lirateke bere ustez, eta aztertu. Bere ustez telefonia mugikorrek antenak arautzean kontu handiarekin ibili behar da.

Gonzalez jauna.

Azaldu du Ordenantza lehendik dauden telefonien tasak kobratzeko dela.

Txurruka jauna

Ipiniko diren telefonia berriak arautu behar direla uste du eta gaia aztertu.

Gonzalez jauna

Zerga oinarria zoruaz zorupea eta zoru gainekoa dela jakinarazi du.

Dubreuil jauna

Tasa kobratzea bere ustez ez da hain garrantzitsua, gaia arautzea garrantzitsuagoa da.

Kontuhartzailea

Telefonia mugikorrek prozedura zein den azaldu du. Ez dira aipatzen beranduago egingo diren telefoniak, dagoeneko daudenei eragiten die.


17.000 €ko diru-sarrerak izango dira, eta ipinita dauden telefonien artean banatu beharko dute, operadore bakoitzaren hedaduraren arabera da.

Gonzalez jauna

Herritarrei kobratzen zaien tasa ez onartzeren alde dagoela azaldu du.

Gainera, erabiltzaileen tarifak hazi egingo direla esan du, tasa tarifa horietan kobratuko delako.

Dubreuil jauna



Kobratzea ondo iruditzen zaiola esan du baina telefoniaren mapa zehaztea garrantzitsuagoa dela iruditzen zaio.

Bozketa

Bozketa egin ondoren, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (EAJ/PNV 4, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Gonzalez jaunak ez du bozkatu, informaziorik ez duelako.

Ondorioz, Alkateak proposamena onartutzat eman du.



Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut